

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ARTZINIEGAKO UDALA****Ibilgailuen gaineko 2021eko zerga eta urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren 1/2021 tasa ordaintzeko epea**

Nik, Unai Gotxi Kastrexana jaunak, Artziniegako Udaleko jarduneko alkateak, ondokoa jakinarazten dut:

Maiatzaren 27a eta uztailaren 27a bitarteko egun baliodunetan (biak barne) kobratzeko jarriko dira, borondatezko epean, bai trakzio mekanikoko ibilgailuen eta horien atoiaren gaineko 2021eko zergaren ordainagiriak, bai etxeak edateko urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborren tasaren ordainagiriak, 2021eko lehen seihilekoari dagozkionak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa.

Behin epe hori igarota, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, bat etorritz indarrean dagoen dirubilketarako arautegi orokorrean ezarritako xedapenekin.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2021eko apirilaren 30a

*Jarduneko alkatea*  
**UNAI GOTXI KASTREXANA**